

Anima zaitez, egin ezazu bat Eskulana



Parte hartu, kontsumitu
gutxiago, berrerabili gehiago

Intsektuen Hotela

Intsektuentzako Hotel bat eraikitzen gonbidatzen zaitugu udaberri honetan polinizazioan laguntzeko.

- Intsektu aniztasunak plaga-kontrolean, laborantzan eta ekosistemen polinizazioan laguntzen du, lurraren osasuna eta emankortasuna mantentzeaz gain.
- Erleek, liztorrek, marigoringoek, kakalardoek, armiarmek eta zizareek beste askoren artean, funtsezkoak dira plagak ekiditeko.
- Intsektuen Hotela kokatzeko lekurik egokiena, toki eguzkitsu batean, babestuta eta lur gainean jarrita izango da. Honela, haizea eta euria saihestuko dugu. Belar eta zuhaixketatik gertu jartzea egokiena izango da elikagaiak modu errazean lortzeko.
- Eskaintzen ditugun estaka ezberdinak ikertu, eman irtenbide bat etxean dituzun hondakinei eta eman gustuko duzun forma zure Intsektu- Hotelari.



Material organikoak, ez organikoak eta birziklagarriak beharko dituzu

Adarrak
Egurrezko xaflak
Pinaburuak
Harriak
Kortxoa
Latak



Kartoizko edo egurrezko kaxa
Turba
Enbor azala
Adreilu zulodunak
Banbu zurtoinak
Lastoa

